



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 13a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari 2016an egin beharreko ekarpena dela-eta Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak kalkulu berri bat igortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Cortesko gazteluaren harresian aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Cascanteko osasun-etxerako sarbidea egokitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Cascanteko Ciudad Jardín urbanizazioko eskola-umeen garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, gaixoak familia ingurunean zaintzeko laguntzarako 2017rako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Zerbitzuari Lotutako Prestaziorako 2017rako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 2015eko uztailearen 1etik aitzina mendekotasunaren balorazioa eskatu ondoren balorazio horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Andosillara, San Adrianera, Azagrara eta Lodosara Nafarroako Ubideko ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Faltzesetik Martzillara ureztaketarako ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan publizitatea kontratatzea dela-eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean hartutako erabakia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zergatik bidali duen ofizialki kontseilari bat enpresaburu gipuzkoar baten hiletara, eta ez, aldiz, beste nafar ospetsu batzuenetara. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoko ikasturte-hasierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, zaharberritze eta egokitze obrak egite aldera eraikin katalogatuen jabe partikularrei egindako errekerimenduei eta administrazio publikoek zuzenean egindako betearazpenei eta jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari 2016an egin beharreko ekarpena dela-eta Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak kalkulu berri bat igortzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari 2016an egin beharreko ekarpena dela-eta Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak kalkulu berri bat igortzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du –galderak 3223 sarrera-zenbakia dauka, 2016ko abuztuaren 31koa (9-16/PES-00295)–, eta haren bidez jakin nahi du ea Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari 2016an egin beharreko ekarpena dela-eta Hitzarmen Ekonomikoaren Zerbitzuak kalkulu berririk igorri duen 2016ko abuztuaren 5aren ondoren. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna:

9-16/PEI-442 galderaren erantzunean aipatu genuen bezala, Hitzarmen Ekonomikoaren eta Finantza Plangintzaren Zerbitzua behar diren azterlanak egiten ari da Estatuarekiko negoziarioari ekiteko, Hitzarmen Ekonomikoan ekarpen

ekonomikoa finkatzeko ezarritako metodologian jasotako hainbat magnitude zenbatesteko aldera: hartutako zamak eta hartu gabekoak, egozpen indizea, konpentsazioak, poliziaren arloan hartutako zamen balorazioa eta abar. Izan ere, horiexekin finkatu beharra dago 2015eko oinarri-urtearen ekarpena.

Magnitude horien guztien zenbatespena bi administrazioen ordezkariak aztertu eta kontrastatu behar dute, horretarako sortutako azpibatzaordearen bitartez, eta Koordinazio Batzaordeari aurkeztu behar zaizkio, bidezko diren erabakiak hartzeko, zeren eta gehienetan kalkuluak ez baitira zuzenak izaten eta haiek zehazteko irizpideak adostu behar baitira.

Behin 2015eko oinarri-urtearen ekarpena finkatuta, Hitzarmen Ekonomikoaren 60.2 artikuluan 2016rako ezarritako behin-behineko gaurkotze-indizea aplikatuz, 2016rako behin-behineko ekarpena zehaztuko da.

Horrenbestez, 2016rako ordaindu beharreko ekarpena Batzorde Negoziatzaileak 2015-2019 bosturtekorako izenpetzen dituen akordioen menpe egonen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko irailaren 30ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 16ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00297 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak 2016ko abuztuaren 25ean egin zuen Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikineko gaurko egoerari buruzko txostena.

Hezkuntza Departamentuak ez du ezinbestekotzat jotzen Beriainen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzea, zeren eta egungo eraikinak eta haren instalazioek behar diren baldintzetan har baitezake irakaskuntza-jarduera, behar diren mantentze- eta apaintze-jarduketak eginez gero. Jarduketa horiek Udalaren eskumenekoak dira eta aurten Beriaingo Udala gisa horretako jarduketa ugari egiten ari da. Gainera, Hezkuntza Departamentuak 2016an 44.889 euroko diru-laguntza eman dio udal horri ikastetxe publikoko komunak eta aldagelak eraberritzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 7an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Udalaren Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 16ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 6n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00299 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2014ko ekainaren 9an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak "Fernando Remacha" udal musika

kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako. Hartan, lankidetzaren horretarako baldintzak ezartzen dira, batetik musikako lanbide-irakaskuntzaren arloko hezkuntza zerbitzuaren prestazioan funtzionamendu egokia bermatzeko eta, bestetik, 2014-2016 aldirako diru-laguntzaren bidezko finantzaketa zuzenerako.

Testuaren hirugarren klausulan adostu zen Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egingen duela Tuterako "Fernando Remacha" udal musika kontserbatorioaren finantzaketari, kudeaketari eta zerbitzuari buruz, hitzarmenak dirauen epean, kudeaketa-modua edo finantzaketa-formula hobetzeari buruzko proposamenak aztertu eta egiteko.

"Fernando Remacha" kontserbatorioaren aurrekontua ezagutzeko, maiatzean 2015eko ekitaldiari buruzko datu ekonomiko batzuk eskatu genizkion Tuterako Udalari. Eskatutako informazioa modu partzalean baizik ez zitzaigun iritsi, Udalak alegatu baitzuen ez zekiela bidalketa horrek Datuak Babesteari buruzko Legea urratzen zuten. Hezkuntza Departamentuko teknikariek jo

zuten ezin zela gutxieneko bermeak zituen txostenik egin, informazio hori eduki gabe. Departamentuko zerbitzu juridikoekin kontsultatu da ea Tuterako Udalari egin zaion eskaerak legezkotasuna urratu duen, eta ondorioztatu da guztiz legekoa dela informazio hori bidaltzea, datu pertsonalak kenduta. Hartara, bada, Tuterako Udalari berriz ere eskatu zitzaion hasiera batean Hezkuntza Departamentuak eskatutakoa osatzeko informazioa bidal zezan, irakaskuntza horien egiazko kostua ezagutze aldera. Informazio hori berriki iritsi da. Azterlana, horrenbestez, prestatze bidean dago, zeren eta hura egiteko informazioaren zati bat duela gutxi iritsi baitzaio Hezkuntza Departamentuari, esan bezala.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak eta Tuterako Udalak 2014-2016 aldirako "Fernando Remacha" udal kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako sinatu duten lankidetzaren hitzarmenaren zazpigarren oinarrian ezartzen da jarraipen batzorde bat eratuko dela lankidetzaren hitzarmen horretan ezarritakoaren jarraipena egiteko eta haren interpretazioa dela-eta sor daitezkeen zalantzak ebazteko edo haren interpretazioa edo aplikazioa direla-eta sor litezkeen gatazkak ebazteko, eta batzorde horretan Tuterako Udalak izendatutako bi ordezkari eta Hezkuntza Departamen-

tuak izendatutako beste bi ordezkari egonen direla. Batzorde hori, ohiko izaeraz, urtean behin bilduko da, ikasturte baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren arteko aldian, eta ezohiko izaeraz, berriz, bi aldeetako edozeinek eskatuta, horietako edozeinek beharrezkotzat jotzen duen guztietan. Aipatutako batzordearen testuinguruan, zeinean batzuetan bai Tuterako Udalaren bai Hezkuntza Departamentuaren beste ordezkari batzuk bildu baitira, eztabaida bat sortu da 2017tik aurrera "Fernando Remacha" udal kontserbatorioaren kudeaketarako eta finantzaketarako formula egokienari buruz.

Lankidetzaren horren ondorioz eta programa akordioa errespetatuta, Hezkuntza Departamentuak Tuterako "Fernando Remacha" udal kontserbatorioko oinarrizko irakaskuntzen eta irakaskuntza profesionalen ehuneko ehuna finantzatuko du.

Azkenik, aurreikusitako aurrekontua eta Hezkuntza Departamentuak Tuterako "Fernando Remacha" udal kontserbatoriorako zehaztutako finantzaketa bat etorriko dira ehuneko ehunetan.

Iruñean, 2016ko urriaren 5ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin David Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ederbidea izeneko proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 16ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peña jaunak idatzizko galdera egin du Ederbidea proiektuaren seinaleei buruz (9-16/PES-00300). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Ederbidea proiektuan aurreikusitako bide-seinaleei dagokienez Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren arabera, Ederbidea proiektuan zenbait bide puska moldatzeko lanak aurreikusten dira. Aurreikusten diren lanak burutzeko aurtengo aurrekontuetan aldiz, bide-seinaleetarako kontu-sailik ez dago.

Izan ere, Ederbidea proiektuak egun ibiltzeko moduan eta behar bezala seinaleztaturik dauden zenbait bide puska (Bidasoko eta Plazaolako natur bideetan, hain zuzen) hartuko ditu. Horietaz gain, beste bide puska batzuek errepideekin bat eginen dute. Bi kasu horietan bide puskak ongi seinaleztaturik daude eta bide seinale berririk behar ez baita, ez da halakorik aurreikusi.

Berriak izanen diren eta, beraz, bide-seinalizazioa beharko duten Ederbidea proiektuko bide puskei dagokienez, lanak 2018an burutuko dira.

Bide seinaleetarako hizkuntza irizpideei doakielarik, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, ez du Ederbidea proiektutik etorriko den seinaleetarako hizkuntza irizpide berezirik finkatu.

Orain arte Herri-lanen Zuzendaritza Nagusian bide-seinaleetako testuetarako barne arau bat aplikatzen da: erabakia, 2006ko irailaren 25ekoa. Erabaki horren arabera, bide-seinaleetako informazio-elementuak eremu euskaldunean ele biz idatziko dira eta gaztelaniaz eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean.

Orobat, aipatzekoa da Nafarroako Gobernua administrazio publikoetan bere hizkuntza berariazkoen erabilera arautuko duen foru dekretuaren proiektua aztertzen ari dela. Foru dekretu proiektu horrek honela dio "Nafarroako Foru Komunitateko errepide sareko bide-seinaleetako informazio-elementuak ele biz idatziko dira".

Hala bada, Nafarroako administrazio publikoetan bere hizkuntza berariazkoen erabilera arautuko duen foru dekretua onarturik, Ederbidea proiektuko bide-seinaleen hizkuntza irizpideak aipatu arauari lotuko zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 7an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 16ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea osatuko duten Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen buruz eta jakiteko lantaldea zenbat aldiz elkartu den, eta nola helaraziko duen historial mediko eta historia klinikoetako informazioa, gaixoen datu-konfidentzialtasunerako eta -babeserako eskubideak errespetatuta (9-16/PES-00301). Hona Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak igortzen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zer profesionalen osatzen dute Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lantaldea?

Ez da lantalde bakarria eratu gaixoen trantsiziorako, bi lantalde baizik, igarotze horren alderdi desberdinei ekin dietenak.

Lantalde horietako batek gaixo horietako batzuk Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik artatuak izaten jarraitzeko irizpideak ezarri ditu; bigarren lantaldeak, berriz, O-NOZeko profesionalen gaixoen informazio kliniko egokirako sarbidea izateko aukera teknikoak aztertu ditu.

Aipatutakoez gainera, Nafarroako Unibertsitateko ordezkariak gutxienez ere bi aldiz bildu dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ordezkariekin, aipatu berri ditugun puntuei dagozkien kontzeptuak argitzeko.

Lehenengo lantaldea honakoek osatzen zuten: Eriaren Osasun Laguntzarako zuzendaria, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea, Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea, Osasun Mentaleko zuzendaria, Osasun Laguntza Integratuko zuzendariordea, Prestazio eta Itunen Kudeaketa Zerbitzuko burua, Osasuneko Informazio Sistemen Zerbitzuko burua eta Herritarren eta Eriaren Arretarako Zerbitzuko burua. Aipatu bezala, lantalde honek Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik gaixo batzuk aldi baterako edo mugarik gabe artatzen jarraitzeko bete beharreko irizpideak ezarri zituen.

Lantaldea zenbat aldiz elkartu da, eta nola helaraziko du historial mediko eta historia klinikoetako informazioa, gaixoen datu-konfidentzialtasunerako eta -babeserako eskubideak errespetatuta?

Lehenengo lantaldea hiru aldiz bildu da; bigarrena, berriz, lehenengo lan-bilera bat egin zuen, non lan-ildoak planteatu baitziren; gero, etengabe harremanak izan dira O-NOZeko eta Nafarroako Unibertsitatea Klinikako profesionalen artean, informazio-eskualdatze egokia lortze aldera.

Bestetik, O-NOZeko Araubide Juridikoko Zerbitzuko buruak txosten bat egin zuen, zeina oinarri gisa baliatu baita informazio klinikoaren eskualdatzea egoki egiteko, konfidentzialtasuna errespetatuta.

Gaixo horiek egoki artatzeko, maiatzaren 1etik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan osasun-arreta izan zuten gaixoen txosten klinikoaren iraulketa automatiko bat egin zen Atenea sisteman. Oinarrizko Osasun Laguntzako historia klinikoan (ATENEA) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko akordioaren esparruan emandako arretatik heldutako txostenak erantsi ziren. Irudiak ez dira modu orokorrean gehitu, baina gehitu egin daitezke, gaixoak eskatzen badu. Irudiak gehitzeko, Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik CD bat ematen du, zeinak ikusgailu bat baitu, aukera ematen

duena irudia CD irakurgailua duen edozein lanpostutatik ikusi ahal izateko. Irudia historia klinikoan gehitzeko, CDa Nafarroako Ospitaleguneko Kontsultetarako eta Proba Osagarrietarako Harrera Atalari igortzen zaio, non eskuz gehitzen baitira Irudi Digitalen Zerbitzarian (PACS).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Cortesko gazteluaren harresian aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Cortesko gazteluaren harresian aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00302) Cortesko gazteluaren harresian aurreikusitako jarduketei buruz. Hauxe erantzun dio Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Kultura Zuzendaritza Nagusiak Cortesko Gaztelua inguratzen duen harresiaren egoeraren berri du 2016ko uztailean udal arkitektoak egindako txostenaren bitartez eta Arkitektura Ondarearen Ataleko langileek egindako bisiten bitartez; azken horiek, gainera, arkitektoarekin lankidetzan jardun dute. Hemendik gutxira beste bisita bat egitea aurreikusi da, eta haren ondoren, halaber, txostena inginen da.

Proiektuaren erredakzioan bestelako konponbiderik ematea deusetan kendu gabe, eskura daukan informazioarekin, bidezkoa da harresiko kalte-tutako horma-atalak guztiz ordezteko edo zaharberritzea eta euri-urak hartzeko sistema aldatzea.

Udalaren txostenean aipatzen den bezala, ez da konponketa-lanen balioa zenbatetsi,

zaharberritze-irizpideak behin betiko finkatzen ez diren bitartean eta proiektua idazten ez den bitartean.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak zuzenean esku har lezake harresiaren konponketa-lanetan (eta halaxe eskatu du Udalak), zeren eta ondare historikoaren arloko ekintza-planean ezarritako baldintzetako batzuk betetzen baitira: ondarearen garrantzia, kultur intereseko ondasunen kategoria baitu; zaharberritzea egiteko beharra; edo haren kudeaketa, erabilera eta bisita publikoaren bermea, Udalaren bitartez eta gaztelua kudeatzen aritu diren boluntarioen konpromisoaren bitartez. Gainera, higiezinaren udal titulartasuna lehentasunezko irizpide bat da Administrazio honen jarduketak hautatzeko orduan, Nafarroako Parlamentuak 2015ko ekainaren 2an onetsitako ebazpenaren ondoren; izan ere, haren bidez Nafarroako Gobernuak premiatu zen lehentasuna eman ziezaien "Nafarroako Gobernuaren edo udalen titulartasuneko eraikin historiko, artistiko eta monumentaletan beharrezkoak diren inbertsioei".

Behin 2017rako Nafarroako aurrekontu orokorrak onetsita, Nafarroako Gobernuak esku hartu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten ondasunen artean hautatu ahalko ditugu Gobernuak zaharberritzea finantzatu edo batera finantzatu ditzakeenak. Esan bezala, Cortesko Gazteluak baldintza horiek betetzen ditu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, Cascanteko osasun-etxerako sarbidea egokitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Cascanteko osasun-etxerako sarbidea egokitzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00303) Cascanteko osasun-etxerako sar-

bidea egokitzeari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Cascanteko osasun-etxerako aurreikusitako obretatik, honako hauek egin dira: eraikinaren klimatizazioa berritu da eta hormetako batzuk zaharberritu dira.

Hemendik gutxira, sarbideak eraberritzeari ekinen zaio. Funtsean, ate automatiko bat jarriko da, maila bat kenduko da eta osasun-etxea margotuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Cascanteko Ciudad Jardín urbanizazioko eskola-umeen garraioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Cascanteko Ciudad Jardín urbanizazioko eskola-umeen garraioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00304 idatzizko galdera egin

du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ez du kenduko Cascanteko Ciudad Jardín urbanizazioko geralekua, ikastetxera doan autobusarena. Akats administratibo bat tarteko, ibilbide hori egiten duen eskola-autobusa irailaren 19an, astelehenarekin, eta egun horretan bakarrik, ez zen aipatutako urbanizazioan geratu. Hurrengo egunetik, irailaren 20tik, aurrera berriz, autobusa urbanizazio horretan geratu izan da aurreko urteetan bezalaxe.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, gaixoak familia ingurunean zaintzeko laguntzarako 2017rako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gaixoak familia ingurunean zaintzeko laguntzarako 2017rako aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo

andreak galdera egin du (9-16/PES-000305) gaixoak familia ingurunean zaintzeko laguntzarako 2017rako aurrekontuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Gaixoak familia ingurunean zaintzeko laguntza arlorako aurrekontu-aurreikuspena hemendik gutxira ezagutuko da, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua onestearekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 11n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Zerbitzuari Lotutako Prestaziorako 2017rako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zerbitzuari Lotutako Prestaziorako 2017rako aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo

andreak galdera egin du (9-16/PES-000306) zerbitzuari lotutako prestaziorako 2017rako aurrekontuari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Zerbitzuari lotutako prestaziorako 2017rako aurrekonturako aurreikuspena hemendik gutxira ezagutuko da, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua onestearekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 11n

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, 2015eko uztailaren 1etik aitzina mendekotasunaren balorazioa eskatu ondoren balorazio horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015eko uztailaren 1etik aitzina mendekotasunaren balorazioa eskatu ondoren balorazio horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-16/PES-000307) 2015eko uztailaren 1etik aitzina mendekotasunaren balorazioa eskatu ondoren balorazio horren zain dauden pertsonen kopuruari buruz. Hona Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Honako hau da aipatutako parlamentariak egindako galdera:

2015eko uztailaren 1etik gaur arte mendekotasunaren balorazioa eskatu ondoren balorazio horren zain dauden pertsonen kopurua. Horien artean, balorazioaren zain hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopurua.

2015eko uztailaren 1etik 2016ko abuztuaren 31ra mendekotasunaren balorazioa egiteko 7.331 eskaera aurkeztu dira guztira.

Gaur egun, 2016ko urrian, 1.720 baloratzeko zain daude (horietatik 43k dokumentazioa osatu gabe dute), eta kasu guztietan hilabete baino gehiagoko itxarote-denbora dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 11n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-16/PES-000308) prestazioa jasotzeko eskubidea izanik 2015eko uztailaren 1etik hona horren zain dauden pertsonen kopuruari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2016ko urriaren 3an, 2.861 pertsona daude prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik prestazio hori jasotzeko zain. Horietatik, 2.261 PIAren balorazioaren zain daude eta 600 prestazio hori esleitzeko zain. Gainera, 318 interesdunek aurkeztu beharreko dokumentazioaren zain daude.

Horietatik guztietatik, 2.864k balorazioa egiteko eskaera duela 6 hilabete baino gehiago egin zuten.

Eta horietan, batez besteko itxarote-denbora 11,2 hilabetekoa da.

Aipatu beharra dago mendekotasunaren balorazioa 2015eko uztailaren 1etik eskatu duten pertsonen (7.731 2015-07-01etik 2016-08-31ra) gehitu egin behar zaizkiela, prestaziorako eskubidea dutelako, uztailaren 1a baino lehen mendekotasun moderatukotzat baloratu direnak eta data horretan eskubidea hartu zutenak (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako egutegiari jarraituz);

horrek, izan ere, berarekin zekarren haiek sisteman sartzea: 3.686 pertsona gehiago ziren.

Aipatu beharra dago ezen ezaguna bazen ere mendekotasun moderatuko pertsonen eskubidea 2015eko uztailaren 1ean hartuko zutela, gobernu berriak jabetza hartu zuenean hori guztia Nafarroan arautu behar zuten hiru foru aginduak onetsi gabe zeudela. Gobernu berria iristearekin, azkenik hiru foru agindu horiek onetsi ziren. 2015eko irailean eta urrian argitaratu ziren NAOen.

Halaber, aurreikusita bazegoen ere mendekotasun moderatuko 3.000 pertsona berri inguru sartuko zirela laguntza-sisteman, lehendik mendekotasun moderatukotzat baloratuta zeuden baina PIA balorazioaren zain eta prestazioa esleitu zain zeuden 3.686 pertsonen gainera, arreta-lanetan diharduten langileen kopurua ez zen bat ere handitu.

Lehendik aurreikusita egon behar zuen eskaeren handitze horrek, bai eta mendekotasun moderatua duten pertsonen prestazioak eskuratzeko eskubidea aitortzen eta arautzen duten foru aginduen prestaketan izandako atzerapenak ebazteko bidean gauden itxarote-zerrenda luzea ekarriko zuela ere.

2015eko abenduaren 31ra arte, bi pertsona (azpikontratatuta) baizik ez ziren ari balorazio ekonomikoak egiten. 2016ko urtarriletik aurrera, departamentuko hiru ekonomialari sartu dira lan horretan, eta aurtengo lehenengo seihilekoan zehar beste bi pertsona hasi dira balorazio ekonomikoak egiten, hori baita atzerapenak sortzen dituen gune nagusia. Dimentsio horrekin, bost teknikari, aldizkotasunez sortzen den balorazio-fluxuari aurre egiteko moduan egonen gara. Itxarote-zerrendari konponbidea emateko, beste hiru teknikari kontratatuko dira 6 hilabeterako, honako helburu honekin: martxoaren amaierarako auzia konponduta egotea.

Aipatu beharra dago ezen 2016ko urtarrilaren 1etik 5.130 espediente ebatzi direla, 9,75 hilabete bategi besteko epearekin. Erantsitako taulan 2009tik ebatzitako PIA espedienteen bilakaera erakusten dugu, bai eta 2015ean espedienteen kopuruan gertatutako igoera garrantzitsua ere.

Urtea	Guztira
2009	1.400
2010	3.495
2011	4.919
2012	3.841
2013	2.489
2014	3.424
2015	5.083
2016	5.130

1. taula. Urtero ebatzi diren PIA espedienteak

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-16/PES-000309) prestazioa jasotzeko eskubidea ematen dien balorazioa izanik 2015eko uztailearen 1etik hona egoitza-zerbitzua jasotzeko zain dauden pertsonen kopuruari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2016. urtean (irailaren 30era arte), familia ingurunean zaintzeko laguntzetarako 2080 eskaera ebatzi dira; laguntzaile pertsonala izateko 12 laguntza; desgaituentzako baliabideetarako eta gaixo mentaletarako 178 eskaera, eta adineko pertsonen esparrurako 908 eskaera. Guztira, 3.898 eskaera ebatzi dira.

Aurreko erantzun batean aipatu dugun bezala, mendekotasun moderatua duten pertsonak prestazioen sisteman sartzeak eta baloraziorako giza baliabideak handitu beharri buruzko aurreikuspen faltak gaur egun daukagun itzarote-zerrenda sortu dute. Hori gorabehera, aipatu ditugun neurriekin, sartzen direnak baino espediente kopuru handiagoa ebatzen ari gara, nahiz eta horien fluxua 2014koa eta 2015eko lehenengo seihilekoko baina handiagoa izan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Prestazio mota	Zerbitzua jasotzeko zain dauden baloratutako pertsonen kopurua	Oharra
Adinekoentzako egoitza-zerbitzua	49 40 balorazio ekonomikoaren zain daude (horiek guztiak egin berri diren eskaerak dira) eta 9 baliabidea emateko zain daude, baina beste prestazio bat jasotzen duten bitartean (eguneko zentroa edo etxez etxeko laguntza zerbitzua).	Gainera, beste 68 dokumentazioa aurkezteko zain daude, dagokien baliabidea ebatzi ahal izateko.
Adinekoentzako eguneko zentroa	16	
Gaixotasun mentalerako eguneko zentroa	8	Bi zerrenda dinamiko dira, maiz altak eta bajak izaten dituztenak. Askotan gertatzen da erabiltzaileak baliabide batetik bestera aldatzen direla. Eskaera guztiak 2016ko urtarrilaren ondutikoak dira.
EPSZ-programak (gaixotasun mentala duten pertsonen eguneko zentroa)	26	
Gaixotasun mentala dutenentzako etxebizitza	17	Eskaera guztiak 2015eko urriaren ondotik egindakoak dira. 4 toki baizik ez dago. 2017rako aurreikusi da tutoretzapeko edo gainbegiraturako etxebizitzetan 12 toki gehiago egotea.
Gaixotasun mentala dutenentzako tutoretzapeko etxebizitza	40	2017rako aurreikusi da tutoretzapeko edo gainbegiraturako etxebizitzetan 12 toki gehiago egotea.
Gaixotasun mentala dutenentzako etxe-egoitza	33	Aurreikusita dago 2018-19rako egoitza berri bat sortzeko aukera egotea.
AGEL erako tokiak	34	Toki itunduetarako sarbidea, zerbitzuarekin lotutako prestazioarekin, Nahasmendu Mental Larrien administrazioen arteko batzordeak zehaztu ohi du. Batzorde horrek baloratzen du kasuak egokiak ote diren baliabideetarako sarbidea izateko. Nolanahi ere, zerbitzuarekin lotutako prestazioaren hautua sarbide pribatuaren bitartez ere egin ahal da. 2017rako, aurreikusita dago 35 toki itundu gehiago egotea.
Gaixotasun mentala dutenentzako zentro okupazionala	12	
Desgaituentzako eguneko zentroa	29	Horietatik, 10 eskola esparruan jada artatuak izan diren eta eguneko zentroko arreta eskatzen duten erabiltzaileei dagozkie, udako hilabeteetan arreta izate aldera. Tuteran beste hiru toki egonen dira 2016an.
Desgaituentzako tutoretzapeko etxebizitza	33	
Desgaituentzako egoitza-zerbitzua	16	Ez da kasu larririk erregistratu berehalako sartzeari eskatzen duenik. Askotan, familiek baliabidea eskatu egiten dute "behar denerako".
Desgaituentzako zentro okupazionala	5	Toki kopurua bi entitate berrirekin handituko da (Aspace eta Down Sindromea): 15 eta 44 toki hurrenez hurren.
Familia inguruneke zainketetarako laguntza	213	
Laguntzaile pertsonala	1	

Oharra: Kontuan hartu beharra dago zerbitzu baterako (egoitzako edo eguneko zentroko toki bat) itxarote-zerrendan dauden pertsonetatik batzuk familia inguruneke zainketetarako laguntza ekonomikoaren bitartez artatzen ari direla.

Oharra: PIA ebatzen ez den bitartean, ezin da jakin kasuko eskatzaileak zein baliabide/prestazio eskatzen duen.

Oharra: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokionez, toki entitateek artatutako pertsonen kopuruari buruzko informazioa ematen dute, baina ez balizko itxarote-zerrendetan dauden pertsonen buruzkoa.

Gainera, 30 erabiltzaile daude prestazioen bateragarritasunaren onura hartu dutenak. 2016ko maiatzean hartu zuen indarra bateragarritasun horrek:

- 2 pertsonak batera egoitza-arreta eta laguntzaile pertsonala daukate;
- 28 pertsonak eguneko zentroa eta etxez etxeko laguntza zerbitzua hartzen dituzte.

Galdera, Nafarroako Gobernuak Andosillara, San Adrianera, Azagrara eta Lodosara Nafarroako Ubideko ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Andosillara, San Adrianera, Azagrara eta Lodosara Nafarroako Ubideko ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Aburrea jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16-/PES-000310) Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeari buruz eta Nafarroako Gobernuak Andosillara, San Adrianera, Azagrara eta Lodosara Nafarroako Ubideko ura eramateko duen aurreikuspenari buruz. Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

Obra publikoen emakida-kontratuaren klausula administratibo partikularren orriaren X. eranskina-
ren arabera, ureztatzea 2018ko apirilaren 15ean hasiko da honako eremu hauetan: Ega 5 (presio bidezko ureztatzea Andosillako "San Sebastián", "Cabezuelos" eta "Ribafuentes" esparruetan), Ega 6 (Andosillako lehorreko lurra), Ega 7-A (presio bidezko ureztatzea Andosillako "Roturas e llagar" esparruan), Ega 7-B (San Adriango lehorreko lurra), Ega 8 (presio bidezko ureztatzea San Adriango "El Monte" esparruan) eta Ega 9 (presio bidezko ureztatzea Azagrako "El Monte" esparruan). Ez dago aurreikusita epe horiek urratzea.

Lodosak emakida-kontratuan sartzea eskatu du, beste eremu berri batzuekin batera. Behar diren agiriak prestatzen ari dira eremu horiek administratiboki sartzeko, Nafarroako Ubidearen eta ureztatuko duen eremuaren lehen fasearen handitzearen PROSIS delakoa aldatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko irailaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Nafarroako Gobernuak Faltzesetik Martzillara ureztaketarako ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Faltzesetik Martzillara ureztaketarako ura eramateko duen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Aburrea jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16-/PES-000311) jakin nahi baitu zer aurreikuspen daukan Nafarroako Gobernuak Faltzesko eta Martzillako ureztalurretarako obrak bukatuta, ura herri batetik bestera eramateko moduari buruz. Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, behin Nafarroako Ubi-
dearen lehen fasearen handitzearen XXII Sektorea
Arga 3ko (Faltzes) obrak amaituta, ez du aurreiku-
sita ura eramatea Martzillara, zeren eta sekula ez
baita hori aurreikusi handitzearen inongo sektore-
tan ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua
betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 19an.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki
Administrazioko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan publizitatea kontratatzea dela-eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Ana San Martín Aniz andreak egindako galdera-
ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, prostitu-
zio-iragarkiak dituzten hedabideetan publizitatea
kontratatzeko dela-eta Herritarrekiko eta Erakunde-
ekiko Harremanetako Batzordean hartutako era-
bakia betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen
2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlametu-
ko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-
taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Mar-
tín andreak ahozko galdera egin du (9-16/PES-
00312) Nafarroako Parlamentuaren errekerimendu
bat betetzeari buruz. Hauxe da horri buruz Herrita-
rrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kon-
seilariak ematen dion informazioa:

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egite-
ko 14/2015 Foru Legearen X. tituluak, bere aplika-
zio-bermeen barruan (75. artikulua), ezartzen du
Nafarroako Gobernuak legearen garapen oroko-
rreko ekintza plan bat onetsiko duela, plan sek-
torialekin batera, aipatutako foru legearen aplika-
zio osoan sakontzeko.

Foru legeak ezartzen du plana jendaurreko
informazioaren izapidearen pean jarriko dela
indarkeriaren prebentzioan eta desagerpenean
interesa duten pertsonen ekarpen eta iradokizu-
nak egin ditzaten.

2015eko abuztuaren 24an, planaren prestaketa
egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko prozesua
hasi zen, eta kontratazioa 2015eko urrian esleitu
zen. Ordutik, aktiboki lan egin da planaren presta-
ketan, ondoz ondoko bost fasetan, honako hauen
parte-hartzearekin: Emakumeen aurkako indarke-
riari arreta ematean eta aurreneurriak hartzean
eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arte-
ko Akordioan parte hartzen duten pertsonak; ema-
kumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta
jarduketan inplikaturako profesionalak; gizarte era-
gileak; emakumeen elkarte mugimendua; indar-
keriatik bizirik atera diren pertsonak, eta Nafarroa-
ko Berdintasunaren Kontseilua.

Plana amaitzeko pronto dago, eta Gobernuak
eta Nafarroako Parlamentuak azaroan eta aben-
duan onetsiko dute, behin Nafarroako Berdintasun-
aren Kontseiluaren aldeko txostena dutenean.

Plan horren barruan, prebentzioaren eta sen-
sibilizazioaren esparruan, honako moduko
neurriak ageri dira: gizartearen sensibilizazioa,
emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informa-
zioa eta komunikazioa eta komunikabideetatik eta
publizitatetik sexismoa kentzea. Aipatutako neurria
garatzeko, honako ekintza hauek jaso dira:

– Komunikabideetatik eta publizitatetik sexis-
moa kentzea: berdintasunaren eta bazterkeria
ezaren sustapena bermatzea komunikabideetan
eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako edo/eta
diruz lagundutako publizitatean, kontratazioetan
berdintasun-klausulak ezarriz, bazterketa ezaren
baldintzarekin zerikusia dutenak.

– Berriazko araudia garatzea: arautuko da
nola bultzatuko den berdintasunaren eta bazterke-
ta ezaren sustapena komunikabideen bitartez eta

Nafarroako Gobernuak berariaz bultzatutako edo/eta diruz lagundutako publizitatean.

– Komunikabideekiko hitzarmenak sustatzea: kalitatezko informazio bat bultzatzea berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, komunikabideekin bidezko diren hitzarmenak eginenez, komunikazioaren kalitate-mailaren jarraipena bideratze aldera.

Neurri horiek gehiago zehazteko, eta foru legearen aplikazio osora bideratutako ekintzetan sakontzeko, betiere arestian aipatutako plan sektorialen lanketa betez legea bere osotasunean aplikatu ahal izateko, hasiak dira jada legean aurreikusitako jarduketara-esparru nagusiei dagozkien departamentuetako lantaldeekiko bilerak. Honako esparru hauetan eginen dira plan sektorialak: osa-

una, hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta enplegua, berdintasuna, polizia eta justizia.

Horrenbestez, deskribatu diren ekintzen exekuzioaren arloko erantzukizuna Nafarroako Berdintasunaren Institutuari eta Komunikazioaren eta Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritzari dagozkio; beraz, ekintzak eta haien aldizkatzea garatzen ari den berdintasunaren plan sektorialean zehaztuko dira. Aurreikusita dago plan horren lanketa urte honen amaiera baino lehen bukatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zergatik bidali duen ofizialki kontseilari bat enpresaburu gipuzkoar baten hiletara, eta ez, aldiz, beste nafar ospetsu batzuenetara.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zergatik bidali duen ofizialki kontseilari bat enpresaburu gipuzkoar baten hiletara, eta ez, aldiz, beste nafar ospetsu batzuenetara. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2016ko irailaren 13ko 3383 sarrera-zenbakia dauka (9-16/PES-00313), eta haren bidez jakin nahi du Nafarroako Gobernuak zergatik bidali duen ofizialki kontseilari bat enpresaburu gipuzkoar baten hiletara, eta ez, aldiz,

beste nafar ospetsu batzuenetara. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren ohiko jokabidea da pertsonalitate nafarren edo Foru Komunitatearekin lotutako pertsonalitateen heriotzarengatik dolu-min-mezuak helaraztea. Ahal den neurrian, gainera, ordezkaritza ofiziala bidali ohi da hiletetara.

Mikel Aranburu kontseilaria Juan Celayaren hiletara joan zen euskal kulturaren eta euskararen arloko erreferentia eta mezenasa izan zelako.

Udal honetan hildako beste pertsonalitate batzuen artean, aipa dezakegu, esate baterako, Golem zinemen sortzaile Josetxo Morenoren errausketara eta agur zibilera Ana Herrera eta Ana Olló joan zirela, hurrenez hurren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasturte-hasierari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoko ikasturte-hasierari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PS-00314) Tuterako "Torre Monreal" Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoan ikasturtea hasteari buruz. Hona Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

1. galdera.- Hezkuntza bereziko ikasleek zergatik ezin dute erabili ikastetxeko igerilekua? Noiz aurreikusten da erabili ahalko dela igerilekua?

"Torre Monreal" eta "Andres Muñoz" ikastetxeetako igerilekua ezin erabiltzearen arrazoia da begirale-zerbitzuaren kontratazio prozesua ez dela amaitu; izan ere, zerbitzu hori behar da azpiegitura hori erabili ahal izateko. Kontratu horren esleipen efektiboa berehala egingen da; horrenbestez, aurreikusita dago epe laburrean bi ikastetxeetako igerilekuak erabili ahal izatea.

2. galdera.- Ikastetxeko fisioterapeutak zergatik ez dira hasi ikastetxe horretan beren lana egiten? Noiz aurreikusten da hasiko direla beharra duten ikasleak artatzen?

2016ko irailaren 1ean, Tuterako eskualdeari atxikitako funtzionario bat lanaldi osoan dago "Torre Monreal" hezkuntza bereziko ikastetxe publikorako izendatuta, eta kontratupeko beste pertsona bat ere badago, hartan bederatzai saio egiten dituenak. Ikastetxeak badu goera horren berri.

Ikasleen zuzeneko arreta 2016ko irailaren 22an hasi zen, zeren eta egun horretara arte fisioterapeutek zeharkako arreta ematen baitzuten: NHBBZko bilerak, langile berrien prestakuntza (zaintzaileak, tutoreak eta abar), altzarien balantzioa eta haietan egin beharreko egokitzapenak, eta abar, betiere, NHBBZren esku-hartzearen esparruan.

3. galdera.- Ikastetxe horretan zergatik ez dago, ikasturte hasiera honetan, atezain-zerbitzurik? Noiz aurreikusten da egonen dela atezain-zerbitzua ikastetxean?

Tuterako "Torre Monreal" hezkuntza bereziko ikastetxe publikoko lanpostua betetzen duen atezainak oporrak izan ditu 2016ko irailaren 1etik 27ra.

Atezainen kontratazio-zerrendan parte hartzen duten desgaituei dei egiteko prozedurak, baldin eta desgaitasuna duen kasuko pertsona gai bada zenbait mugarekin, nahitaez dakar eskatzea ikastetxeak zehatz ditzala lanpostu horretan bete beharreko eginkizun berariazkoak. Eginkizun horiek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziari igortzen zaizkio, azken horrek erabaki dezan desgaitasuna duen pertsonak eginkizun horiek bete ote ditzakeen.

Horrekin batera gertatu zen data horietan beste lanpostu batzuk bete behar izan zirela ordezkotako langileekin; hori dela eta ordezkotako langilea ez zen lanean hasi 2016ko irailaren 15era arte.

4. galdera.- Zergatik ez da handitu, eskatu den bezala, zaintzaile-kopurua ikastetxean?

Zaintzaileen plantilla handitzea ikastetxeko zuzendaritzarekin itundu zen, haren beharrei erantzuteko moduan.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, zaharberritze eta egokitze obrak egite aldera eraikin katalogatuen jabe partikularrei egindako errekerimenduei eta administrazio publikoek zuzenean egindako betearazpenei eta jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zaharberritze eta egokitze obrak egite aldera eraikin katalogatuen jabe partikularrei egindako errekerimenduei eta administrazio publikoek zuzenean egindako betearazpenei eta jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urriaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du (9-16/PES-00315) zaharberritze eta egokitze obrak egite aldera eraikin katalogatuen jabe partikularrei egindako errekerimenduei eta administrazio publikoek zuzenean egindako betearaz-

penei eta jarduketei buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

– Katalogatutako eraikinetako jabe partikularrei zaharberritze-obrak egin ditzaten balizko errekerimenduak egitea ez da Etxebizitza Zerbitzuaren eskumeneko gaia.

Toki entitateak dira jabe partikularrei errekerimenduak egiten dizkietenak, eraikinak eta etxebizitzak erabilera-egoera egokian eduki ditzaten.

– Etxebizitza Zerbitzuak ez du obrarik egin jabetza pribatuko eraikinetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko urriaren 13an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-16/PES-000316) mendekotasunaren balorazioa egiteko eskabideei buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2016ko irailaren 30ean, 1.513 pertsona dira mendekotasunaren balorazioa egin dakien eskatu eta horren zain hiru hilabete baino gehiago daramatenak.

Balorazioa egiteko eskabidea aurkezten denezik hura egiten den arte igarotzen den denbora 4,53 hilabetekoa da.

2016ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte, guztira 4.500 balorazio-eskaera jaso dira, eta epe berean 4.676 eskaera ebatzi dira.

Bi pertsona gehiago sartu dira mendekotasunaren baloraziorako lantaldeko plantillan. Beraz, guztira 12 pertsona daude. Tamaina horrek jasotzen ari den eskaera-fluxua ebazteko balio lezake; izan ere, eskaera kopuruak gora egin baitu 2015eko erdialdetik aurrera. Sortzen joan diren itxarote-zerrendei erantzuteko, beste parlamentu-galdera batean azaldutako arrazoiak tarteko, beste hiru pertsona kontratatu dira 6 hilabeterako; horrenbestez, martxoaren amaierarako bukatu ahalko ditugu lanak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-16/PES-000317) hainbat zerbitzu jasotze aldera mendekotasunaren balorazioa egin dakien zain sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonen kopuruari buruz. Hona Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Prestazio mota	Balorazio-eskaera egin zutenetik sei hilabete baino gehiago zain eman dutenak
Adinekoentzako egoitza-zerbitzua	151
Adinekoentzako eguneko zentroa	12
Gaixotasun mentalerako eguneko zentroa	0
EPSZ-programak	8
Gaixotasun mentala dutenentzako etxebizitza	12
Gaixotasun mentala dutenentzako tutoretzapeko etxebizitza	36
Gaixotasun mentala dutenentzako etxe-egoitza	25
AGEL erako tokiak	24
Gaixotasun mentala dutenentzako zentro okupazionala	Daturik ez dugu
Desgaituentzako eguneko zentroa	15
Desgaituentzako tutoretzapeko etxebizitza	20
Desgaituentzako egoitza-zerbitzua	8
Desgaituentzako zentro okupazionala	0
Familia inguruneko zainketetarako laguntza	207
Laguntzaile pertsonala	1

Oharra: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokionez, toki entitateek artatutako pertsonen kopuruari buruzko informazioa ematen dute, baina ez balizko itxarote-zerrendetan dauden pertsonen buruzkoa.

